## Lagundu Eraztun Berdea kontserbatzen

## Ayúdanos a conservar el Anillo Verde

Isilik ibiltzen bazara, behatuz eta entzunez, ibilbidea gehiago estimatu eta gozatuko duzu.

Caminar en silencio, observando y escuchando, hará que aprecies y disfrutes más del paseo.

Erraztu bizikidetza beste pertsona batzuekin: ibiltariekin, kirolariekin, txirrindulariekin, naturaren behatzaileekin, etab.

Facilita la convivencia con otras personas: paseantes, deportistas, ciclistas, observadores de la naturaleza, etc.

Kontrolatu zure maskota. Kontuan izan basa-faunarentzat mehatxu bat izan daitekeela.

Controla a tu mascota. Ten en cuenta que puede suponer una amenaza para la fauna silvestre.

Ez elikatu basa-fauna: bere portaera aldatzen du, eragina izan dezake bere osasunean, ekosistema alda dezake...

No alimentes a la fauna silvestre: altera su comportamiento, puede afectar a su salud, puede alterar el ecosistema, ...

Ez eragin kalterik landarediari. Ez erauzi landarerik eta ez ebaki lorerik.

No causes daños a la vegetación. No arranques plantas ni cortes flores.

Erabili edukiontziak edo eraman zaborra bueltan etxera.

Utiliza los contenedores o llévate la basura de vuelta a casa.

Zure ibilgailuan etortzen bazara, aparkatu horretarako prestaturiko tokietan.

Si te acercas en tú vehículo, aparca en las zonas reservadas para ello.

**Zure bisitak ez dezala aztarnarik utzi Eraztun Berdean!**

**¡Qué tu visita al Anillo Verde no deje huella!**

Edozein zalantza edo iradokizun baldin baduzu, edo argibide gehiago jasotzeko, jo ezazu Ataria (**945 16 26 16**), Ingurugiro Gaietarako Ikastegira (**945 16 26 96**) edota Informazioko Udal Zerbitzura (**010**).

Ante cualquier duda o sugerencia, o para más información, dirígete, por favor, a Ataria (**945 16 26 16**), al Centro de Estudios Ambientales (**945 16 26 96**) o al Servicio Municipal de Información (**010**).



IBILBIDE ORNITOLOGIKOA
ITINERARIO ORNITOLÓGICO

# SALBURUA

## Vital ibilbide urdina Salburuko hegaztiak ezagutzeko ibilbide autogidatua da

7 km inguruko ibilbide hau Arkauti, Durantzarra, Larregana eta Betoñuko urmaelak inguratzen ditu eta 11 behaketa puntu ditu, horietan Salburuko hegazti fauna ikusi eta hartaz gozatu ahal izateko.

Behatu daitekeen hegazti aniztasuna urtarokotasunaren araberakoa da. Urte osoan zehar espezie sedentarioez gozatu ahal izango duzun arren, kontuan izan parkeko atrakzio nagusietako bat hegazti migratzaileak direla. Neguan, hezegunean babesa bilatzen duten espezie negutarrak ikusiko dituzu. Udaberrian eta udan, hegazti habiagileek inguru hori aprobetxatzen dute ugaltzeko. Gainera, udaberrian eta udazkenean, parkea geldiune garrantzitsua da beren helmugetarako bidean dauden hegazti migratzaileentzat. Planifikatu zure bisita sasoiaren arabera, Salburuko biodibertsitate aberatsaz ahalik eta gehien gozatzeko.

Ibilbidean dauden informazio paneletan, hezeguneetan ohikoenak diren hegazti espezieen deskribapena aurkituko duzu: haien ezaugarriak, berezitasunak eta parkean urteko zein garaitan dauden.

Vital Bide URDINA
Ruta Vital AZUL



# SALBURUA

IBILBIDE ORNITOLOGIKOA · ITINERARIO ORNITOLÓGICO

| NOLA IRITSI | CÓMO LLEGAR |
|---|---|
| Salburua bulevarra<br>Hezeguneen ibilbidea<br>Biosferaren ibilbidea | Bulevar de Salburua<br>Paseo de los Humedales<br>Paseo de la Biosfera |
| **L3 Betoñu-Goikolarra**<br>Zurbanoko atea/Biosfera geltokia | **L3 Betoño-Goikolarra**<br>Parada Portal de Zurbano/Biosfera |
| **Ibaiondo-Salburua**<br>Salburua geltokia | **Ibaiondo-Salburua**<br>Parada Salburua |
| **Ataria** \| **Buesa Arena** \| **Arkauti** | **Ataria** \| **Buesa Arena** \| **Arcaute** |

**945 16 26 16**
**ATARIA. Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa**
**ATARIA. Centro de Interpretación de los Humedales de Salburua**
www.vitoria-gasteiz.org/ataria

**945 16 26 96**
**CEA. Ingurugiro Gaietarako Ikastegia**
**CEA. Centro de Estudios Ambientales**

**010**
**Argibidetarako telefonoa**
**Información ciudadana**

## La Ruta Vital Azul es un recorrido autoguiado para conocer la avifauna de Salburua



Este itinerario de aproximadamente 7 km, en torno a las balsas de Arcaute, Duranzarra, Larregana y Betoño, consta de 11 puntos de observación en los que podrás observar y disfrutar de la avifauna de Salburua.

La diversidad de aves que puedes observar está determinada por la estacionalidad. Aunque podrás disfrutar de las especies sedentarias durante todo el año, ten en cuenta que las aves migratorias son una de las principales atracciones del parque. En invierno, podrás observar las especies invernantes que encuentran refugio en el humedal. En primavera y verano, las aves nidificantes aprovechan este entorno para reproducirse. Además, en primavera y otoño, el parque se convierte en un importante punto de parada para las aves migratorias en tránsito hacia sus destinos. Planifica tu visita según la temporada para disfrutar al máximo la rica biodiversidad de Salburua.

En los paneles informativos situados en el itinerario encontrarás la descripción de las especies de aves más comunes en los humedales: sus características, singularidades y época del año en la que están presentes en el parque.

Salburuko Parkea · Parque de Salburua



# SALBURUKO PARKEA

Historia duen hezegunea

# PARQUE DE SALBURUA

Un humedal con historia

Salburua Gasteizko akuifero kuaternarioak elikatutako hezegunea da. Arabako Lautadaren azpian hedatzen den lurpeko ur-erreserba handia da kuaternarioa.

1857an, Salburuko gunea eraldatzeko prozesua hasi zenean, eremuak hainbat aintzira (urmael) zituen, Arabako Lautadako paisaiaren berezko harizti zabal batez inguratuta. Urmaelak lehortu eta basoak moztu ziren laborantzarako. Hasieran, Larreganeko putzua desagertu zen, gero Arkautikoa, eta, azkenik, Betoñukoa, azken hori XX. mendearen erdialdean drainatua.

1994an, leheneratze ekologikoko lanei ekin zitzaienean, apenas geratzen zen jatorrizko ekosistemaren aztarnarik: haritzen gune txiki bat Elorriaga iparraldean, eta degradatutako hezegune bat Betoñutik gertu, non isurketek, ezkutuko ehizak eta legez kanpoko kokalekuek inpaktu handia zuten. Betoñuko urmaelaren drainatzea indargabetu egin zen, eta Larregana eta Arkautiko urmaelak drainatzen zituen Baltsako kanala ixteko dike bat eraiki zen. Geroago, 2005ean, Durantzarreko aintzira leheneratu zuten. Guztira 200 hektarea baino gehiago berreskuratu dira ingurumenaren aldetik, eta horietatik 60 ur-laminak dira uholde gehieneko garaian.

Balio ekologiko handia izateaz gain, Salburuko hezeguneek funtsezko zeregina betetzen dute Gasteiz uholdeetatik babesteko. Urak baretzeko gune gisa jarduten dute, eta San Tomas eta Errekaleor ibaien emaria erregulatzen dute ur-goraldietan.

Salburua es un humedal alimentado por el Acuífero Cuaternario de Vitoria-Gasteiz, una gran reserva subterránea de agua que se extiende bajo la Llanada Alavesa.

En 1857, cuando comenzó el proceso de transformación del espacio, la zona contaba con varias lagunas (conocidas localmente como balsas) rodeadas de un extenso robledal propio del paisaje de la Llanada Alavesa. Se desecaron las lagunas y se talaron los bosques para dedicarlos al cultivo. Primero desapareció la balsa de Larregana, luego la de Arcaute y, finalmente la de Betoño, que fue drenada a mediados del siglo XX.

En 1994, cuando se iniciaron los trabajos de restauración ecológica, apenas quedaban vestigios del ecosistema original: un pequeño rodal de robles al norte de Elorriaga y una zona húmeda degradada cerca de Betoño, muy afectados por vertidos, furtivismo y asentamientos ilegales. Se anuló el drenaje de la laguna de Betoño y se construyó un dique para cerrar el Canal de la Balsa, que drenaba las lagunas de Larregana y Arcaute. Más tarde, en 2005, se restauró la laguna de Duranzarra. En total se han recuperado ambientalmente más de 200 hectáreas, 60 de las cuáles son láminas de agua en época de máxima inundación.

Además de tener un gran valor ecológico, los humedales de Salburua cumplen un papel clave en la protección de Vitoria-Gasteiz frente a las inundaciones. Actúan como recintos de laminación, regulando el caudal de los ríos Santo Tomás y Errekaleor durante los episodios de crecida.



